

## **Funtsezko baliabideak (Baserri eskola)**

Negozio-eredu batean funtsezko baliabideak aplikatzeko hainbat modu desberdin daudela esan daiteke. Guk hainbat modu hartu egin ditugu. Alde batetik, haurren hezkuntza eskubide bat bezala ikusten dugu. Beraz, gure zerbitzua etengabeko hobekuntza prozesu batean sartzen dugu, gero eta perfekzio maila handiago bat lortzeko. Horretarako, gure bezeroen iritzia zein den jakiteko eta gure zerbitzuaren maila baloratzeko hainbat motatako inkestak burutuko ditugu.

Beste alde batetik, gure baserri eskolaren iraunkortasuna bilatzen dugu. Beraz, gure baserri eskola aurrera eraman ahal izateko, profesionaltasun eta esperientzia handia duten giza-talde batek osatuko du bertako lan taldea. Baina horretarako zerbitzu honen lehenengo baliabide intelektuala eta giza baliabideak gu geuk zehaztuko ditugu. Iraitz eta Mariaren sormenaren bitartez, Oierrek eta Gaizkak dituzten informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzen bitartez eta Anek dauzkan salmentetarako eta antolaketerako abilezien bitartez. Bertako oinarria zehaztu ondoren, gure esperientzia eta kontaktuetan murgilduz, hezitzaile talde aproposamenaren aukeraketa pertsonalizatua egingo dugu.

Baliabide fisikoei erreparatuz, esan dezakegu hainbat izan ahal direla. Hasteko, baserri eskola izango den baserri propioa eta bere inguruan dagoen espazio zabala izango litzateke. Ondoren, haurren garapen prozesu hori aberasteko beharrezkoak diren materialak aurkituko litzateke. Adibidez; margotu ahal izateko material desberdinak, are kutxa bat, argi mahai bat, Piklerren materialak...

Finantza baliabideetan, hasiera batean gure aurrezkietan oinarrituko gara. Ondoren, kostuen eta irabazien arabera moldatzen joango gara.